

44 ■ Nagelen eskaera, plagioa dela eta



Artistak ia bost urteko kartzela zigorra eskatuko du Porcelanas Bidasoako bi enpresabururentzat.



46 ■ Zinema eta historia borrokan

Zinemaren eta historiaren arteko harremanari buruz hitzaldia eman du Santiago de Pablo EHuko irakasleak.

«Hiria hamaika harremanek sortzen dute egunero, ez eraikin fetixeeek»

LUTXO EGIA Idazlea

Denbora tarte laburrean, Bilbo «produktore izatetik produktu izatera» igaro dela uste du Egiak. Hiri ereduaz eta botere harremanez gogoeta egin du nobela berrian.

IRUNE BERRO

Bilbo

Lutxo Egiak (Santander, Espainia, 1969) istorio bi harilkatu ditu *Zubi-gilea*-n (Susa, 2007). Bilboko Zorroztarren egingo duten operazio makrourbanistikoa gainean eraikitakoa, eta, 1964an, Bartzelonan, Europako Futbol Txapelketan kokatzen den sabotaje saioa.

Nobelan bi gogoeta gai jorratu dituzu, batetik bat: batetik zubiaren irudia eta batetik hiria. Zer esanahi hartzen dute zure obran zubiak eta hiriak?

Boterea izan dut gogoeta gai nagusia. Eta horretarako, zubiaren irudia erabili dut. Zubia bitartekaritza hitz egiteko erabili ohi dugu. Baina ni ideia horretatik aldendu naiz. Nire ustez, bitartekaritzan garrantzitsuak dira aldeak, eta ez zubiak. Eguneroko bizitzan, gure harremanetan, arlo sozial, politiko nahiz ekonomikoan, biko harremanak sortzen ditugu askotan. Dualismoa: zuria-beltza, biolentak-ez biolentak... Sailkapenak egiten ditugu. Badago diskurtso bat esaten duena hortik aldendu behar dugula. Baina batzuetan, hori esaten duenak bere burua erdian kokatzeko esaten du hori. Eki-distantzia sortzen du, eta horrek boterea ematen dio. Hiria ezinbestekoa zitzaidan nobela osatzeko. Bilboren eraikitze prozesuan ematen ari diren hainbat fenomenori erreparatu diet, kritiketan sartu gabe.

Zubiaren anti-irudia landu duzula esan duzu.

Eleberrian badago pertsonaia bat, Andres Peruarena arkitektoa. Beste bulego batzuetako bi arkitektoekin lan egin behar du. Harremanak gatazkatsuak izango dira arkitekto bi horien artean, eta Peruarenak erdian kokatuko du bere burua, arkitekto bi haiek elkarrengana hurbiltzeko. Azken batean, fantasia bat eraikiko du, botere harreman hori faltsua baita. Dualis-



MARSOL RAMIREZ / ARCAIZO PRESS

moen artean bere burua jartzen duenak espazio faltsua eraikitzen du. Hirugarren espazio bat, baina faltsua, ez baita existitzen. Politikagintzan askotan ematen den fenomeno da hori. Liburuan, hori salatu dut: zubiak ere beste irudi bat ekar dezakeela, bitartekaritza-ekin zerikusirik ez duena.

Honela diozu liburuan: «Auzunea zubi-ara moldatu: arkitektura ulertzeko modu xelebre, gero eta zabalduagoa egun».

«Ezazri digute hiria eraikitze modu bat, eta onartu ezean, susmagarri bihurtzen gaituzte»

Bilbon —eta beste hiri batzuetan— fenomeno bitxia eman da: denbora laburrean, pasatu gara produktore izatetik produktu izatera. Ikonizazio prozesua eman da. Marketin urbanoa egin dute. Bilbao marka sortu dute. Hiria zelan eraikitzen den kritikatu gabe oharitzen gara planifikatuta daukatela hiria nola eraiki. Zorroztarren, adibidez, hiperrealismotik sortuko dute. Arkitektoa zein izango

«Hiriak merkantziak dira, baina idazleak ere bai; gaur egungo gizartearen ondorioetako bat da hori»

zen erabaki aurretik esan zuten Bilboko Manhattan izango zela. Irudi zehatza sortu zuten. Ezinezkoa. Manhattan badagoelako bat. Hiri berria horrela sortu dute, ikono bidez.

Masa kritikorik gabe ez dago arkitektura onik, zenbaiten ustez. Bilbon badago masa kritikorik, zure iritzia?

Jende askok esango du Bilbon badagoela arkitektura ona: Guggenheim, Euskalduna, metroat... Baina, beharbada, herritarrek partehartze handiagoa eduki beharko lukete hiriaren eraikitzean. Daniel Burenak Salbeko zubian jarritako obra nahiko polemikoa izan da, besteak beste, Guggenheimeko bisitariek aukeratu dutelako boto bidez.

Eta hamar bisitaritik bederatz Euskal Herritik kanpokoak dira...

Ezazri digute hiria eraikitze modu bat. Bilbo munduko mapan jartzea izan da helburua, erakuslehoi batean. Merkantzia bihurtu dute. Horren aurrean, burua makurtzea besterik ez omen zaigu gertatzen, horrela egin ezean, susmagarri bihurtzen baikara.

Masa kritikorik ez dago, hortaz?

Nik ez diot ez dagoenik. Ahalegi-nak egiten ditut ulertzeko non bizi naizen. Hori da kritikoa izatea. Kritikoa izatea ez da esatea AHTren aurka nago, eta beste horren kontra. Kritikoa izatea da esatea: Non bizi naiz? Zer ari dira bertan eraikitzen? Nor ari da eraikitzen? Zergatik? Zein da helburua? Horrekin pentsamendu bat gartzeko eta hautuak egiteko. Gero moduak topatu behar ditugu hori guztia bideratzeko.

Dimitri pertsonaia dio: «Hiri puta honetan berriari esker aberastu nahi duenak oztopo dik zaharra». Hiri bat berreskuratzeko beharrezkoa da zaharra bazter uztea?

Ez, inondik inora. Gaur egun memoriaren kolapsa ematen ari da. Abandoibarran, adibidez, duela hogei urte Euskalduna ontziola zegoen, eta istiluak ere bai. Hori guztia ezabatu da gure buruetatik, beste gauza batzuk ezabatzen diren moduan. Kontua ez da amore ematea. Baizik eta bideak bilatzea aldaketa horiek horren traumatikoak izan ez daitezkeen. Identitatei buruz ari naiz. Gaur egun, ziurrenik Abandoibarrarekin identifikatzen gara, edo Guggenheimekin,

edo Puppyrekin. Baina ezin ditugu beste barik onartu identitate berri hauek eta lehen genituenak baztertu. Memoria mantentzea garrantzitsua da. Hiriak hamaika faktoreen ondorioz aldatzen dira. Horregatik, argi izan behar dugu non bizi garen, eta eutsi behar diegu gure identitatei. Bilbo atzerri-tarrez bete zaigu. Eta honi buruz hausnarrean, lehengo egunean irudi bat etorri zitzaidan burura; Athletic atzerriarrez beteta: Gehry, Hadid, Stern, Pelli, Siza, Moneo, Starck... Hamaikakoa osatu arte. Bilboko Athletic izan beharrean, Bilboko Pritzker deitu beharko genioke. Izarren Ligan jokatzeko hiria eraiki nahi dugu, eta Izarren Ligan jokatzeko izarrak behar ditugu, nahitaez. Ametzolako geltoki intermodala egin dute berriki. Baina badakigu zein arkitekto egin duen? Bi espazio sortzen dira —eta ez naiz eremu geografikoaz ari—. Bata denok ezagutu behar dugu, hedabideek behartuta. Bestea ezkutuan geratzen da.

Nobelako beste esaldi bat: «Azpikoa eta bezeroeria leporatzen zizkieten udal gobernuari». Hori gertatu da Bilbon. Hau da, zenbait auzo elkarte eta talde politikoki bi irizpide horien arabera jokatu izana leporatu diote Bilboko Udalari sarri askotan. Zer iritzi duzu?

Espekulazio handia dago mundu horretan. Hiriaren eraikitze lurrei kalifikazioa aldatu behar zaie, saldu, erosi... Harreman horietan sartzen dira politikariak, enpresak... Agerikoa da hor zer dagoen.

Halaxe dio liburuko beste pasarte batek: «Glamour-a irrikatzen duen gizarte batean bizi gara azken batean. Ezkerreko mugimenduak karga dira hura lortzeko, baina azkenean jendeak kopak eta El Correo-ren argazkian agertzea desiratzten dituzte».

Hiria eraikitze politikariek marketa baliatzen dute, baina hori arlo guztietan gertatzen da, literaturan ere bai. Hiriak merkantziak dira, baina idazleak ere merkantzia gara. Egungo gizartearen ondorio bat da hori. Komunikabideetan agertzea garrantzitsua da, eta, jakina, *El Correo*-ko argazkiarena metafora da. Baina badago mundu bat horren inguruan harikaltzen dena.

Fernando Pessoa eta Julio Cortazarren aipu bana ekarri duzu liburuan. Cortazarrek dio: «Un puente es un hombre cruzando un puente» [Zubi bat da pertsona bat zubi bat igarotzen].

Hiri herritarrek osatzen dutela diote biek. Ikonoak edo fetixeeak eraiki daitezke, baina hiria hamaika harremanek sortzen dute egunero, eta harreman txiki horiek sortzen dituzte identitateak, edo sortu beharko litzukete identitate nagusiak, eta ez eraikin hutsek eta haien irudiek.